

Gurot! Euskal Galderen Unibertsoa

Hamabi urtetik 17 urtera bitarteko gazteentzako jolasa da, eta horien aisialdian euskara sustatzea du helburu



Euskaraz jolastu nahi duzu? Txorierriko Mankomunitateak, Uribeko beste udal batzuekin batera, Gurot! Euskal galderen unibertsoa deituriko jolasa sortu du. Gurot! kultura unibertsala eta euskal kultura euskaraz eta online lantzeko jolasa da, galdera-erantzunen bidezko norgehiagoketan oinarritutako jolas interaktiboa, hain zuzen ere.

Aplikazioa, berez, 12-17 urte bitarteko gazteentzat prestatu da, eta helburu nagusia gazteen aisialdian euskararen erabilera sustatzea da. Tresna eraginkorra izan gura luke, gazteek jolasaren bidez euskara hutsezko harremanak izan ditzaten.

Proiektuaren sustatzaileak eta antolatzatzaileak hauek izan dira: Txorierriko, Uribe Butroeko eta Uribe Kostako Mankomunitateak, eta Mungiako, Erandioko, Getxoko eta Leioako Udalak. Horiek elkarlanean aritu dira, Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkai-ko Foru Aldundiaren laguntzaz.

Aplikazioaren jatorria

Urteotan Txorierriko Mankomunitatea, inguruko eskualdeetako udalekin batera, arduraz ibili da ondarearen bilketa nola gizarteratu eta gazteengana nola heldu aztertzen. Hainbat batzarren ostean,

Udal eta Mankomunitateen ordezkariak, jolasaren edukiez arduratu den Joseba Santxo euskal filologoarekin batera, lan-gaia zabaldu behar zela pentsatu zuten, gazte guztiengana iritsiko bazen. Halandaze, mendebaldeko euskaraz eta kulturaz gain, Euskal Herri osoko gaiak eta gai unibertsalak ere sartzea erabaki zuten.

Horrelaxe, ba, zortzi arlo hauek landu dira galdera-erantzunetan: Gizartea (Geo-

grafia/Historia...), Natura (Biologia/Geologia/Ekologia...), Hizkuntza (Hizkuntzalari-tza/Literatura/ Mitologia...), Artea (Margolaritza/Eskultura/Arkitektura...), Kultura (Etnografia/Sukaldaritza/Ohiturak...), Zientzia (Fisika/Kimika/Teknologia/Informatika...), Kirola (Herri kirolak/Kirol olinpikoak/Kirol markak...), eta Aisia (Musika/Zinema/Antzerkia/Komikia...).

Galderak prestatzean, irizpide hauek hartu dira kontuan: gazteen formazioarako galdera interesgarriak izatea, galdera harri-erriak edota jakin-erriak izatea, eta galdera bakoitzaren hiru erantzun posibleen bitartez gazteengan zalantza eta jakin-erri sortzea, eta dena bizkaieraren ukitua duen idazkerarekin, Uribe Kosta eta Uribe Butroeko eskualdeen ezaugarri linguistiko eta kulturaleri arreta berezia emanez.

Gurot! Euskal Galderen Unibertsoan 600 galdera baino gehiago daude, eta lehiaketan parte hartu nahi duten gazteak ekainaren 21era arte lehiatuko dira. Horretarako, Gurot! app-a jaitsi www.gurot.eus webgunean, jolastu eta puntuazio-rik handiena eskuratzen dutenen 100 finalisten artean egingo da zozketa. Sari potoloa jasoko du irabazleak: Iphone 6 telefono mugikorra, eta Hesian taldearekin argazkia, eta backstage-rako sarrera hain zuzen ere.





Mugi Txorierri proiektuari hasiera eman zaio

Urtarrilean, Txorierriko jarduera fisikoaren orientazio zerbitzuko lehenengo hitzorduak hasi dira. Mugi Txorierriren helburua Txorierriko biztanleen artean jarduera fisikoa sustatzea eta sedentarisismoa murriztea da, eta, horretarako, hainbat eragileek osatutako sare bat dabil lanean. Programaren lehenengo fase honetan, osasun zentroek JFOZera (Jarduera Fisikorako Orientazio Zerbitzua) bidaltzen dituzte baldintzak betetzen dituzten pertsonak. Gainera, jarduera fisikoko sustapenaren inguruko hitzaldiak eman dira IES Txorierri BHIko DBHko 4. mailako ikasleentzat. Hitzaldi horietan, JFOZko arduradunak, Aitor Mayordomok, jarduera fisikoaren onuraz hitz egin die ikasleei, hau da, onura fisiko, mental eta sozialei buruz. Era berean, Txorierriin jarduera fisikoa egiteko dauden baliabideak erakutsi dizkie.

Txioa aretoa

Izen-ematea bukatuta, 2019. urtean, Txorierriko gazteek osatutako 10 musika taldek erabiliko dute entsegu-lokala. Hainbat estiloko taldeak dira, Hardcore, exe taldearen rap-etik hasi eta The Equalizers taldearen rock klasikoko bertsioetaino, Sakatu elektrotarangaren jai giroko estiloko musikatik pasatuz.



Lokalean programa

Gazte-lokaletan aurrera eramaten den hezkuntzako esku-hartzea, Lokalean programa, alegia, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko esku-hartze komunitarioko zerbitzuaren ardatz bihurtu da. Gazteen artean gero eta ezagunagoa den programa da, gazteekin lan egiteko helburua duena, eta gazte-lokalak aukera edota heziketarako esparru moduan ikusten dituen. Gaur egun, Txorierriin dauden 15 gazte-lokalekin lan egiten ari da, eta horietaz gain, beharrak dituzten beste bost gazte-talderekin ere. Gainera, bitartekaritza lanak egin dira, arazoren bat egon denean.

Euskerearen Erabilera Plan barria (2018-2022) onartu dau Mankomunidadeak

Abenduaren 26an, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunidadeko osoko bilkurak Euskerearen Barne Erabilera Plana onartu eban. Aurreko planen ildoari jarraituz, eta izenak salatzen dauan lez, plan honen helburu nagusia da Mankomunitateko administrazioak, ahoz eta idatziz, euskeraz emoten dauan zerbitzua hobetzea. Plan honetan, ganera, euskerea zerbitzu-hizkuntza izatetik lan-hizkuntza izateko bidean jarri gura da.

Plan estrategikoa da onartu barri dana, eta marko orokorra zehazten dau.

Bertan, Plangintzaldi honetarako helburuak, kontuan izango diran oinarri nagusiak, diagnostikoa eta hizkuntza-irizpideak jasotzen dira.

Diagnostikoa egiteko, BIKAIN zurgiriaren metodologia erabili da. Holan, ondo zehaztutako adierazleak (helburuak) egongo dira, aurrerago be erabili ahal izango diranak, geure administrazioan euskerearen erabilerak gora edo behera egiten ete dauan neurtzeko.

Plangintzaldi honetako barrikuntzea da urtero kudeaketa plan bat onartuko

dala, langileak adostu ostean. Bertan, ekintza zehatzak eta egingarriak jasoko dira: batzuek erakunde osoari eragingo deusie; eta beste batzuek, barriz, arlo jakin bati baino ez.

Edozelan be, geure administrazioan euskerearen erabilerak gora egitea bilatzen da. Mankomunidadeak Erabilera Plana onartu dauan lez, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunidadea osatzen daben sei udalkek be plan bana onartu dabe. Horrek, norabide beretsuan jarduteko eta sinergiak sortzeko aukerea zabalduko deusku.